

**Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala****119. zenbakia****Data 2008-06-23****18982 orria****7 UDAL ADMINISTRAZIOA****DONOSTIAKO UDALA****Donostiako Udalaren Administrazioaren eta Gobernuaren Erregelamendu Organikoa. Behin betiko onspena.****DONOSTIAKO UDALA****Idazkaritza Nagusia**

*Gobernuaren eta Donostiako Udaleko Administrazioaren Erregelamendu Organikoen behin betiko onspena.*

Donostiako Udalbatzak, 2008ko apirilaren 4an egindako osoko bilkuran, Gobernuaren eta Donostiako Udaleko Administrazioaren Erregelamendu Organikoen behin-behingo onspena erabaki zuen eta informazio publikorako epea zabaldu zuen, edozein pertsonak egokitzen zituen iradokizunak eta alegazioak aurkezteko.

Hasierako onarpen horren iragarkia 2008ko apirilaren 16an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, espedientea jendeaurrera ateraz, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 30 laneguneko epean.

Halaber, iragarkia Udaleko Iragarki Oholean ikusgai egon zen epe berberean.

2008ko maiatzaren 22an epea amaituta, ez da iradokizunik, ezta alegaziorik ere, aurkeztu eta ondorioz, Legea 7/1985 apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 49 artikuluan agintzen dena aplikatuz, behin-behineko akordioa behin betiko bihurtu da.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta ados ez dagoenak bi hilabete du errekurtsioa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Emandako epea argitalpen hau eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 70.2 artikuluan agintzen duena betez, bestetik, behin-betiko onartutako Gobernuaren eta Donostiako Udaleko Administrazioaren Erregelamendu Organikoa argitara ematera goaz.

Donostia, 2008ko ekainaren 11.—Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Donostiako Udaleko Idazkari Orokorra.

(1026) (7314)

**GOBERNUAREN ETA DONOSTIAKO UDALEKO ADMINISTRAZIOAREN ERREGELAMENDU ORGANIKOA****AURKIBIDEA****ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.**

1. artikulua. Xedea
2. artikulua. Printzipio orokorrak.
3. artikulua. Beste administrazio publikoekiko harremanak.

**I. TITULUA. -DONOSTIAKO UDALEKO ANTOLAMENDUA.**

4. artikulua. Administrazio-antolamendua.
5. artikulua. -Organo nagusiak, lurralde-organoak eta organo instituzionalak.
6. artikulua. Goi-mailako organoak eta zuzendaritzak.
7. artikulua. Antolamendu- eta egitura-zehaztapena.

**II. TITULUA. ALKATEA.**

8. artikulua. Alkatea.
9. artikulua. Eskumenen eskuordetzea.
10. artikulua. Alkatearen ordezkapena.
11. artikulua. Alkatearen uko egitea.

12. artikulua. Bandoak, instrukzioak eta dekretuak.

13. artikulua. Alkatearen kabinetea.

### III. TITULUA. GOBERNU BATZORDEA.

I. kapitulua. Mota, izena, osaera eta funtzioak.

14. artikulua. Mota eta izena.

15. artikulua. Osaera eta izendapena.

16. artikulua. Eskumena eta eskuordetzea.

II. kapitulua. Gobernu Batzordearen funtzionamendua.

17. artikulua. Bilkurak eta deialdiak.

18. artikulua. Gai-zerrenda.

19. artikulua. Deliberamenduak eta sekretua gorde beharra.

20. artikulua. Espedienteak.

21. artikulua. Aktak.

22. artikulua. Erabaki-ereduak

III. kapitulua. Antolamendua.

23. artikulua. Eskuordeko Batzordeak.

24. artikulua. Gobernu Batzordearen Bulegoa.

IV. kapitulua. Erantzukizun politikoa.

25. artikulua. Udalbatzarekiko harremanak.

26. artikulua. Erantzukizun politikoa.

### IV. TITULUA. -DONOSTIAKO UDALEKO ADMINISTRAZIOA.

1. atala. Zuzendaritzak, Gobernu-departamentuak.

27. artikulua. Zuzendaritzak.

28. artikulua. Gobernu-departamentuak.

29. artikulua. Antolamendu hierarkikoa.

2. atala. Goi-mailako organoak.

30. artikulua. Goi-mailako organoak.

31. artikulua. Gobernu-zinegotziak eta Gobernu-ordezkarriak.

32. artikulua. -Zuzendaritza politikoaren eta goi-mailako zuzendaritzaren funtzioak.

33. artikulua. -Koordinazio-funtzioak dituzten zinegotziak edo gobernu-ordezkarriak.

3. atala. Zuzendaritzak.

34. artikulua. Zuzendariak.

35. artikulua. Koordinatzaile nagusiak.

36. artikulua. Beste zuzendaritza-organoak.

37. artikulua. Zuzendaritza-batzordea.

38. artikulua. Zuzendaritza-organoak, erregimena.

4. atala. Aholkularitza Juridikoa.

39. artikulua. Aholkularitza Juridikoa.

40. artikulua. Antolamendua.

41. artikulua. Donostiako Udaleko abokatuak.

42. artikulua. Funtzioak.

43. artikulua. Auzibideko funtzioaren betetzea.

44. artikulua. Kontsulta-funtzioen betetzea.

5. atala. -Kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren eta aurrekontu-kudeaketaren organoak.

45. artikulua. -Kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren organoa.

46. artikulua. Aurrekontu-kudeaketaren organoa.

47. artikulua. Kontabilitate-organoa.

6. atala. -Kontrolaren eta barne-fiskalizazioaren organo arduraduna.

48. artikulua. Udalaren esku-hartze orokorra.

### V. TITULUA. KIDE ANITZEKO ORGANOAK.

- 49. artikulua. Kontzeptua.
- 50. artikulua. Eraketa-baldintzak.
- 51. artikulua. Erregimen juridikoa.
- 52. artikulua. Eratzea, aldatzea eta desegitea.

#### VI. TITULUA. ERAKUNDE PUBLIKOAK.

- 53. artikulua. Eraketa, funtzioak eta atxikipena.
- 54. artikulua. Nortasun juridikoa eta ahalmenak.
- 55. artikulua. Sailkapena.
- 56. artikulua. Eraketa, aldaketa, bat egitea eta desegitea.
- 57. artikulua. Estatutuak.
- 58. artikulua. -Atxikipenak, antolamendu-arauak eta funtzionamendua.
- 59. artikulua. Zuzendaritza-organoak eta partaidetza.
- 60. artikulua. Kontseilu Errektorea.
- 61. artikulua. Lehendakaria.
- 62. artikulua. Gerentea.
- 63. artikulua. Idazkaria.

#### VII. TITULUA. MERKATARITZA SOZIETATEAK.

##### I. kapitulua. Udal sozietateak.

- 64. artikulua. Tokiko merkataritza-sozietateak.
- 65. artikulua. Eraketa, funtzioak eta atxikipena.
- 66. artikulua. Zuzendaritza- eta administrazio-organoak.
- 67. artikulua. Erakunde publikoen sozietateak.

##### II. kapitulua. Partaidetza sozietateak.

- 68. artikulua. Udalak gehiengoa duen sozietateak.
- 69. artikulua. Gutxieneko partaidetza duten sozietateak.
- 70. artikulua. Partaidetza, atxikipena.
- 71. artikulua. Zuzendaritza- eta administrazio-organoak.
- 72. artikulua. Erakunde publikoen sozietateak.

#### VIII. TITULUA. BESTE ENTITATE BATZUK.

##### I. kapitulua. Partaidetza entitateak.

- 73. artikulua. Partaidetza entitateak.
  - 74. artikulua. Partaidetza, atxikipena.
- ##### II. kapitulua. Udalaz gairik gabeko entitateak.
- 75. artikulua. Udalaz gairik gabeko entitateak.
  - 76. artikulua. -Udal-ordezkaritza udalaz gairik gabeko toki-entitateetan.
  - 77. artikulua. Atxikipena.

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK.

- Lehenengoa. Lehenengoko ezarpena duten xedapenak.
- Bigarrena. Alkatearen antolamendu-xedapenak.
- Hirugarrena. Lanpostuen zerrendak.
- Laugarrena. Ebazpen-liburua.
- Bosgarrena. Barrutiak.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

- Bakarra. Indargabetutako xedapenak.

#### AZKEN XEDAPENA.

- Bakarra. -Jakinarazpena, argitalpena eta indarrean sartzea.

### ATARIKO TITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua. Xedea.

- 1. Tokiko erregimenaren legedian xedatutakoaren baitan, erregelamendu organiko honen helburua Donostiako Udaleko gobernua eta administrazioa arautzea da.

2. Udalbataza, bestalde, bere erregelamendu propioek eta aplikatuko zaizkion bestelako xedapenek arautuko dute.

*2. artikulua. Printzipio orokorrak.*

Udal-administrazioak objektibotasunez eta eraginkortasunez zerbitzatuko ditu interes orokorrak; horrez gain, udal-jardueren kalitatea nahiz gardentasuna bermatu eta gainerako administrazio publikoekiko koordinazioa eta lankidetzat sustatuko ditu. Halaber, herritarrekin izaten dituen harremanetan, aztergaiak berehala eta behar bezala konpontzeko ahalegina egingo du, eta, beti, legearen eta zuzenbidearen arabera jardungo du.

*3. artikulua. Beste administrazio publikoekin harremanak.*

Donostiako Udalak beste administrazio publikoekin izaten dituen harremanetan, informazioaren, lankidetzaren, koordinazioaren eta bakoitzaren eskumen-esparruekiko errespetuaren printzipioak aintzat hartuko dira.

## I. TITULUA

### DONOSTIAKO UDALEKO ANTOLAMENDUA

*4. artikulua. Administrazio antolamendua.*

Oro har, Donostiako Udala zuzendaritzen bidez dago antolatuta, eta horiek, halaber, gobernu-departamentuen bidez; dena den, ez diete kalterik egiten horiei atxiki gabe dauden beste organo batzuei, ez erregelamendu honetan aurreikusi direnei, ez antolamendu-eredu bereko beste edozeini.

*5. artikulua. Organo nagusiak, lurralde organoak eta organo instituzionalak.*

Donostiako Udalaren antolamenduan organo nagusiak, lurralde organoak, erakunde publikoak eta merkataritza sozietate publikoak daude; entitate horiek guztiak osatzen dute, zehazki, Donostiako Udalaren erakunde-administrazioa.

*6. artikulua. Goi-mailako organoak eta zuzendaritza-organok.*

1. Betetzen dituzten funtzioak kontuan hartuz, Donostiako Udaleko organoak goi mailakoak, zuzendaritza-organok eta administratiboak izan daitezke.

2. Goi-mailako organoei politiken goi-mailako zuzendaritza lanak betetzea, planifikatzea eta koordinatzea dagokie; ostera, zuzendaritza organoek ohiko zuzendaritza lanak bete eta aurrekoek hartutako erabakiak gauzatu behar dituzte, eskuordetu diezazkieten beste eskumen batzuk eta honako erregelamendu honetan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe.

*7. artikulua. Antolamendu- eta egitura-zehaztapena.*

Erregelamendu honetan zehaztutako baldintzei jarraiki, alkateari dagokio udal-administrazio exekutiboaren antolamendua eta egitura dekretu bidez finkatzea, bai eta eskumenak eta organo desberdinen arteko harremanen arauak zehaztea ere. Bestalde, antolamendu eta egitura hori ezartzean, administrazioantolamenduaren gorengo mailan zuzendaritza organotzat hartzen diren organoak zehaztuko ditu.

Halaber, antolamendu eta egitura hori ezartzean, alkateak erakunde publikoen eta merkataritza sozietateen atxikipena eta esleipena zehaztuko du, betiere horiek udal-jarduerako eremu zehatz batekiko duten funtzioarekin koherente izanez.

## II. TITULUA

### ALKATEA

*8. artikulua. Alkatea.*

1. Alkateak du udaleko ordezkari gorenaren. Berak deitzen ditu Tokiko Gobernu Batzordearen bilkurak, eta, horietan, lehendakari lanak betetzen ditu; halaber, bera arduratzen da udal politika, gobernu eta administrazioa zuzentzeaz, eta antolamendu juridikoaren arabera bete behar dituen gainerako funtzio guztiak betetzen ditu, udalbatzari eta Gobernu Batzordeari dagozkien eskumenei eragin gabe.

2. Alkateak gorentasun tratamendua izango du, eta bere kargua dedikazio osoz beteko du.

3. Alkatea da bere kudeaketa politikoaren erantzule udalbatzaren aurrean.

*9. artikulua. Eskumenen eskuordetzea.*

1. Alkateak legeak ematen dizkion eskumenak dekretu bidez eskuordetu ahal izango dizkie Gobernu Batzordeari, bertako kideei, gainerako zinegotziei eta, hala badagokio, koordinatzaile nagusiei, zuzendari nagusiei edo antzeko beste erakundeei, betiere lege horiek zehaztutako moduari jarraiki.

2. Aurreko atalean aipatutako eskuordetzeen baitan sartuko da dagozkion zerbitzuak zuzentzeko eta, oro har, kudeatzeko ahalmena –hirugarrenei eragiten dieten administrazio egintzen bidez ebazteko ahalmena barne–, berariaz kontrakoa adierazten denean salbu.

3. Alkateak eskuordetutako eskumenak dekretuaren dataren biharamunetik sartuko dira indarrean, dekretuan bertan besterik zehaztu ezean, eta ez dute Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEKO argitalpenean eraginik izango.

4. Alkateak bere eskumeneko ekitaldi zehatz bat dekretu bidez eskuordetu ahal izango die Tokiko Gobernu Batzordeko edozein kideri, gainerako zinegotziei, eta, hala badagokio, koordinatzaile nagusiei, zuzendari nagusiei eta antzeko organoei, betiere legeek eskuordetzeari dagokionez ezarritako mugak betez. Eskuordetze espezifiko horiek dekretuaren dataren biharamunetik izango dute eragina; horrez gain, interesatuei jakinarazi egingo zaie, eta ez da beharrezkoa izango Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

#### *10. artikulua. Alkatearen ordezkapena.*

1. Kargua hutsik dagoenean, karguaren jabea falta denean edo gaixo dagoenean, alkatearen lekua alkateordeek beteko dute, izendapen hurrenkerari jarraiki eta adierazpen-egintza berezirik egin beharrik gabe; dena den, egoera horren berri eman beharko zaio Udaltzatuko zuzendari nagusiari eta, hala badagokio, laguntza-organoko titularraren funtzioak betetzen dituen pertsonari.

Nolanahi ere, ordezkapen hori nola egin behar den alkateak zehaztu ahal izango du.

2. Alkatea falta delako edo gaixo dagoelako haren postua bete behar denean, haren funtzioak hartzen dituen alkateordeak ezingo ditu lehenengoak emandako ahalmenak atzera bota.

#### *11. artikulua. Alkatearen uko egitea.*

Alkateak bere karguari uko egin ahal izango dio, zinegotzi-kargua galdu gabe. Uko egite hori idatziz aurkeztu beharko da udaltzatzen aurrean, eta, ondoren, udaltzatzen jakinaren gainean dagoela adierazi beharko du, hamar eguneko epean.

Horrelakorik gertatuz gero, hutsik gelditu den postua hauteskunde legedian araututakoari jarraiki beteko da.

#### *12. artikulua. Bandoak, instrukzioak eta dekretuak.*

1. Alkatearen bandoak bi modutakoak izan daitezke: Batetik, xedapen orokorretan zehaztutako betebeharrak edo obligazioak gogorarazteko informazioa ematen dutenak, eta, bestetik, larrialdi bereziko arrazoiak direla-eta denboraldi baterako arauak ezartzetik salbuesten duten neurriak hartzen dituztenak.

Bandoak udaletxeko iragarki taulan argitaratuko dira, bai eta herritarrek horren berri izan dezaten egoki irizten diren bestelako bitartekoetan ere.

Premia bereziko arrazoiengatik egindako bandoetan, dagokion udaltzatza-batzordeari jakinarazi beharko zaio, berehala.

2. Alkateak udal-administrazioa osatzen duten organoen eta erakundeen jarduera zuzendu ahal izango du, udal zerbitzuei emango zaizkien barne aginduen bitartez; agindu horiei, hain zuzen, «alkatearen instrukzioak» deituko zaie.

3. Alkateak bere eskumenak gauzatzean ematen dituen gainerako ekintzak «alkatearen dekretuak» izendatuko dira.

#### *13. artikulua. Alkatearen kabinetea.*

1. Alkatearen kabinetea alkateari berehalako eta etengabeko laguntza eta aholkularitza ematen dion organoa da; besteak beste, konfiantzazko lanak eta aholkularitza lan bereziak egiten ditu.

2. Kabinetearen baitan, bertako buruzagitzaren koordinazio eta zuzendaritzapean, alkatearen aholkulariak eta laguntzaileak daude; horiek, alkatearen zuzeneko aginduak betetzen dituzte. Kabinetea osatzen duten pertsonak behin-behingo langileak dira, eta alkateak berak izendatzen nahiz kargutik kentzen ditu, dekretu bidez eta askatasun osoz; horrenbestez, alkatea kargutik kentzean, langile horiei ere kargua kentzen zaie.

3. Dituzten funtzioak betetzeko, kabinetea kideek Donostiako Udaleko organo guztietan behar beste informazio lortu ahal izango dute; nolanahi ere, hala dagokienean, jasotako informazioa sekretupean gorde beharko dute.

### III. TITULUA

#### GOBERNU-BATZORDEA

#### I. KAPITULUA -MOTA, IZENA, OSAERA ETA FUNTZIOAK

*14. artikulua. Mota eta izena*

1. Tokiko Gobernu Batzordeak, alkatea buru duela, bertako kide anitzen bitartez laguntzen du alkateari dagokion zuzendaritza politikoaren funtzioa betetzen, eta, aldi berean, legeak agintzen dizkion funtzio exekutiboak eta administratiboak betetzen ditu.

2. Donostiako Udalean, Tokiko Gobernu Batzordeari «Donostiako Gobernu Batzordea» deituko zaio.

*15. artikulua. Osaera eta izendapena.*

1. Alkateari dagokio Gobernu Batzordeko kideak izendatzea eta kargutik kentzea; bestalde, batzordekideen kopurua ezingo da udalbatzako kideen legezko kopuruaren herena baino gehiago izan, alkateaz gain.

2. Alkateak zinegotzi-kargurik ez duten pertsonak Gobernu Batzordeko kide izendatu ahal izango ditu, betiere horiek kide guztien herena baino gehiago ez direnean (alkatea kontuan hartu gabe). Pertsona horien eskubide ekonomikoak eta gizarte zerbitzuak hautetsien berdinak izango dira.

3. Zinegotzi-kargua duten Gobernu Batzordeko kideetatik, alkateak zinegotzi-idazkaria izendatuko du; hain zuzen, pertsona horrek idatziko ditu bilkuretako aktak, eta, horrez gain, bertan hartzen diren erabakiak egiaztatuko ditu.

Zinegotzi-idazkaria falta bada edo gaixorik badago, alkateak zehazten duen Gobernu Batzordeko beste zinegotzi batek ordezkatuko du.

*16. artikulua. Eskumenak eta eskuordetzea.*

1. Donostiako Gobernu Batzordeari tokiko erregimeneko legedian zehazten diren eskumenak eta legeek esleitzen dizkietenak dagozkie.

2. Donostiako Gobernu Batzordeari esleitutako eskumenak Gobernu Batzordeko gainerako kideei, beste zinegotziei, koordinatzaile nagusiei, zuzendari nagusiei edo beste antzeko erakundeei eskuordetu ahalko zaizkie, eskumen horiek esleitzeko arauetan xedatutakoari jarraiki.

3. Aurreko atalean aipatutako eskuordetzeen baitan sartuko da dagozkion zerbitzuak zuzentzeko eta, oro har, kudeatzeko ahalmena –hirugarrenei eragiten dieten administrazio egintzen bidez ebazteko ahalmena barne–, berariaz kontrakoa adierazten denean salbu.

4. Eskuordetzeak dagokien erabakia hartzen den dataren biharamunetik sartuko dira indarrean, bertan besterik xedatu ezean, eta ez dute Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEKO argitalpenean eraginik izango.

5. Gobernu Batzordeak bere eskumeneko ekitaldi baten gauzatzea dekretu bidez eskuordetu ahal izango die Tokiko Gobernu Batzordeko edozein kideri, gainerako zinegotziei, eta, hala badagokio, koordinatzaile nagusiei, zuzendari nagusiei eta antzeko organoei, betiere legeek eskuordetzeari dagokionez ezarritako mugak betez. Eskuordetze espezifikoki horiek dekretuaren dataren hurrengo egunetik aurrera izango dute eragina; horrez gain, interesatuei jakinarazi egingo zaie, eta ez da beharrezkoa izango Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

## II. KAPITULUA. -GOBERNU BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDUA

*17. artikulua. Bilkurak eta deialdiak.*

1. Donostiako Gobernu Batzordearen bilkurak alkateak horien deialdia egin ondoren izango dira; bilkura horiek bi motatakoak izan daitezke: Ohikoak –aurrez zehaztutako maiztasuna dute– eta ezohikoak –presazkoak ere izan daitezke–.

Ezohiko bilkurak alkateak hala erabaki duelako deituko dira.

2. Alkateari dagokio ohiko eta ezohiko bilkuren deialdia egitea; deialdia, gutxienez, 24 ordu lehenago egin behar da, eta dagokion gai zerrenda erantsi behar da.

3. Deialdia egiteko baliabide telematikoak erabiliko dira, eta, hori ezinezkoa denean, idatziz egingo da.

4. Ohiko eta ezohiko bilkurak egin, eztabaidatu eta erabakiak hartu ahal izateko batzordearen osaketa baliozkoa izan behar da, eta, horretarako, ezinbestekoa da honako baldintza hauek betetzea: Batetik, alkatea eta zinegotzi-idazkaria –edo, bestela, horien ordezkariak– nahiz batzordekideen erdiak bertan egotea, eta, bestetik, zinegotzi kopurua zinegotzi kargua ez duten kideen kopurua baino handiagoa izatea.

5. Ohiko bilkurei dagokienez, Gobernu Batzordea astean behin bilduko da, alkatearen dekretu bidez Batzordeak bere funtzionamendurako eta onartu behar dituen proposamenak eta ebazpenak behar bezala prestatzeko onartzen dituen arauetan xedatutakoari eragin gabe. Bilkurak alkatetzak egoitza duen udal-eraikinean egingo dira, deialdian aparteko arrazoiak direla-eta bilkura udal administrazioako beste eraikin batean egingo dela zehazten denean salbu.

6. Gobernu Batzordea, halaber, presazko ezohiko bilkura batean bildu ahal izango da, inolako deialdirik egin gabe, alkateak hala erabakitzen duenean eta batzordekide guztiak bertan daudenean edo bertan ez daudenean joan ezin izana arrazoitzen dutenean.

7. Bilkura horietara batzordekide ez diren zinegotziek eta zuzendaritza organoen titularrek joan ahal izango dute, alkateak berariaz deitzen dituenean.

*18. artikulua. Gai-zerrenda.*

1. Alkatearen aginduei jarraiki, Gobernu Batzordeko zinegotzi-idazkariari dagokio bilkuretako gai zerrendak egitea; gainera, gai zerrendari amaitutako administrazio espedienteak eta ebazpen proposamenak erantsi beharko dizkio.

2. Bestalde, Gobernu Batzordeko Bulegoko zuzendariaren ardura da amaituta dauden edo ebazpen proposamena duten gaien zerrenda egitea. Ebazteko edo erabakitzeke dauden espedienteen azterketa egiteko, Gobernu Batzordeko Bulegoaren zuzendariak dagokion asteko egutegia egingo du.

3. Presazko arrazoiak direla eta, Gobernu Batzordean gai zerrendan sartu gabeko gaiak landu ahal izango dira; horretarako, ordea, lehenik eta behin alkateak baimena eman behar du, eta Gobernu Batzordeko Bulegoko zuzendariak, bestalde, erabakita dagoen eta ebazpen proposamena duen gaitzat aurkeztu behar du.

*19. artikulua. Deliberamenduak eta sekretua gorde beharra.*

Gobernu Batzordeko deliberamenduak sekretupekoak izango dira, eta, beraz, bertan parte hartzen dutenek isilpean gorde beharko dituzte bai bertan landutako gaiak, bai euren kargua dela-eta eskuratu ahal izan dituzten dokumentuei buruzko datuak.

*20. artikulua. Espedienteak.*

1. Gobernu Batzordeko espedienteak, besteak beste, honako hauek osatuko dituzte: Erabakiak, proposamenak eta txostenak, bai eta nahitaez egin behar diren gainerako izapideak ere.

2. Erabakiak formalizatu eta gero, Gobernu Batzordeko Bulegoan egongo dira udalbatzako kideen eskura; horretarako, hain zuzen, erregistro bat sortuko da, eta horrek ez du inolako eragozpenik jarriko, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoan aurreikusitako baldintzei jarraiki, edozein unetan edozein espedienteri buruzko informazioa eskatzeko. Hartutako erabakiak bitarteko telematikoak erabiliz eskuratzeko aukera bermatuko da.

*21. artikulua. Aktak.*

1. Gobernu Batzordearen erabakiak aktan agertu beharko dira, eta akta hori betetzeko eta sinatzeko ardura zinegotzi-idazkariak izango du.

2. Bilkura bakoitzeko aktan honako datu hauek adierazi beharko dira: Data, hasiera eta amaiera orduak, parte hartu duten kideen izenak, landutako gaiak eta onartutako erabakiak.

3. Ondoren, akta hori Gobernu Batzordeak berak onartu beharko du egiten duen hurrengo bilkuran edo bilkuretan.

4. Zinegotzi-idazkariak sinatuko duen akta onartu eta gero, Gobernu Batzordeko kideei, talde politikoen bozeramaileei eta kontu-hartzaile nagusiari bidaliko zaie.

*22. artikulua. Erabakien ereduak.*

Gobernu Batzordeak hartutako erabakiak zinegotzi-idazkariak sinatuko ditu.

Bestalde, Gobernu Batzordeko Bulegoaren zuzendariaren ardura izango da hartutako erabakiei buruzko ziurtagiriak egitea.

### III. KAPITULUA. -ANTOLAMENDUA

*23. artikulua. Eskuordeko Batzordeak.*

1. Gobernu Batzordeak –alkatearen edo beste edozein kideren eskariz– behin-behingo edo behin betiko Eskuordeko Batzordeak sortzea erabaki ahal izango du, bi departamenturen edo gehiagoren eskumenetan eragiten duten gaiak prestatzeko eta aztertzeko, programa ildoak edo interes komuneko jarduerak egiteko, eta, oro har, egokitzat jotzen diren gai guztiak aztertzeko.

2. Eskuordeko Batzorde bat sortzeko erabakian bertan zehaztuko da horren iraupena (behin-behinekoa edo iraunkorra), esleitutako funtzioak, funtzionamendu erregimena eta partaideak; hain zuzen, partaide horien artetik izendatuko dira lehendakaria eta idazkaria. Halaber, Gobernu Batzordeko Bulegoaren zuzendaria horren idazkari izendatu ahal izango da, eta horrek dagozkion funtzioak beteko ditu, bere kabuz edo eskuordetuta.

3. Eskuordeko Batzordeen deliberamenduak isilpekoak izango dira, eta bertan hartutako erabakiak irizpenak izango dira.

*24. artikulua. Gobernu Batzordearen Bulegoa.*

1. Gobernu Batzordearen Bulegoa Gobernu Batzordeari eta horren zinegotzi-idazkariari laguntzeko organoa da, eta zuzendari bat izango du; zuzendaritza lanak beteko dituen pertsona hori tokiko administrazio funtzionarioen (gaitasun nazionalekoen) eta atxikitako udal langileen artean izendatuko dute.

2. Udaltzako idazkari nagusia izendatu ahal izango da, Gobernu Batzordeko Bulegoaren zuzendariari dagozkion funtzioak esleituz. Udaltzako idazkari nagusiak funtzio horiek beteko ditu, bere kasa edo bere zuzendaritzako langileei eskuordetuta.

3. Gobernu Batzordeko Bulegoaren zuzendariari honako funtzio hauek dagozkio:

- a) Gobernu Batzordeko zinegotzi-idazkariari laguntzea.
- b) Gobernu Batzordeko kideei deialdiak egitea.
- c) Bilkuren deialdiak, gai zerrendak eta aktak artxibatzea eta gordetzea.
- d) Hartutako erabakiak behar bezala eta zehaztasunez jakinaraztea.
- e) Udaltzaren pertsona bakarreko eta kide anitzeko organoek egindako ekintzen eta hartutako erabakien fede ematea nahiz fede ematearen gainerako funtzioak betetzea, udaltzako idazkari nagusiari, Gobernu Batzordeko zinegotzi-idazkariari eta enpresa entitate publikoetako administrazio kontseiluetako idazkariari dagozkienak salbu; gainera, eskumen hori udaleko beste funtzionario bati eskuordetu diezaioke.
- f) Erakunde autonomoen kontseilu errektoreetako idazkaritza lanak egitea, beste funtzionario batzuen esku utzi ditzakeenak.
- g) Estatuko administrazioari eta autonomia erkidegoari udaleko organo erabakitzaileek egindako ekintzen eta hartutako erabakien kopia edo, halakorik ezean, laburpena bidaltzea, gai horri dagokionez udaltzako idazkari nagusiari esleitutako eskumenei kalterik eragin gabe.

#### IV. KAPITULUA. -ERANTZUKIZUN POLITIKOA.

##### *25. artikulua. Udaltzaren harremanak.*

1. Donostia hiriko Gobernu Batzordeak eta bertako kideek udaltzarekin izango dituzten harremanak azken horren erregelamendu organikoan horri dagokionez aurreikusitakoaren araberrakoak izango dira.

2. Hautetsiak ez diren Gobernu Batzordeko kideek (alkateari jakinarazitako justifikaziorik ezean) udaltzako bilkuretara joan beharko dute; gainera, eztabaidetan parte hartu ahal izango dute, bertako lehendakariari dagozkion antolamendu ahalmenei eragin gabe.

##### *26. artikulua. Erantzukizun politikoa.*

1. Gobernu Batzordeak, modu solidarioan, bere kudeaketaren erantzukizun politikoa hartuko du udaltzaren aurrean, kide bakoitzak bere zuzeneko kudeaketari dagokionez duen ardura baztertu gabe.

2. Gobernu Batzordearen erantzukizun politikoa alkatearen aurkako zentsura mozioaren bidez eta horrek aurrekutatutako konfiantza arazoaren bidez eska daiteke; bide horiek, hain zuzen, hauteskunde erregimenaren legedian aurreikusitakoari jarraiki bideratuko dira.

3. Gobernu Batzordeak eskumenak eskuordetu arren, horrek ez dio udaltzaren aurrean duen erantzukizun politikotik salbuesten.

#### IV. TITULUA

#### DONOSTIAKO UDALEKO ADMINISTRAZIOA

##### 1. ATALA. -Zuzendaritzak, gobernu-departamentuak

##### *27. artikulua. Zuzendaritzak.*

1. Eskumenak gauzatzeko eta dagozkion gobernu eta administrazio funtzioak garatzeko, udal administrazioa eskumen multzo homogeneotan egituratuko da; zuzendaritzen bidez, hain zuzen.

2. Zuzendaritzak, halaber, azpizuzendaritzetan, azpisailetan, sekzioetan eta beste unitate txikiagoetan edo antzekoetan antolatu ahal izango dira; era berean, administrazio unitate txikiago horiek zuzenean koordinatzaile nagusi baten mendean egon daitezke.

3. Salbuespen kasu batzuetan, zuzendaritza batean sartu gabeko administrazio-unitate txikiagoak ere izan daitezke.

4. Alkatearen dekretuz, erakunde publikoak eta merkataritza-sozietateak nahiz udal kudeaketaren garapenerako beharrezko irizten dituen beste entitateak zuzendaritza edo gobernu-departamentu bati atxikita geldituko dira.

##### *28. artikulua. Gobernu-departamentuak.*

Gobernu-departamentuak ezarri ahal izango dira jarduera-eremu homogeneotako zuzendaritzen, erakunde publikoen eta sozietateen koordinazioa eta funtzionamendua hobetzeko.

Gobernu-departamentu baten zehaztapenak berekin dakar koordinatzaile nagusiaren funtzioak beteko



dituen zuzendaritza organo bat izatea, edo, bestela, dagozkion funtzioak udaleko beste zuzendaritza organo bati esleitzea (zuzendariari edo koordinatzaile nagusiari).

Eskumenak gauzatzeko eta dagozkien gobernu eta administrazio funtzioak garatzeko, gobernu departamentuek Idazkaritza Nagusi Teknikoa izan ahalko dute, idazkari tekniko baten zuzendaritzapean; horretarako, lanpostuak sortuko dira, lanpostu zerrendaren bitartez. Zehazki, idazkaritza tekniko bakarria ezarri ahalko da hainbat gobernu-departamentutarako.

#### *29. artikulua. Antolamendu hierarkikoa.*

Zinegotziak eta gobernu ordezkariak dira alkateak esleitu dizkien administrazio unitateen, zuzendaritzen edo maila txikiagoko unitateen, erakunde publikoen eta sozietateen goi mailako arduradunak

Zuzendaritza-organok eta zuzendaritza-funtzioak dituzten postuak aurreko pertsona horietako baten mendean daude. Salbuespen kasuetan, administrazio antolamendua egitean alkateak hala erabakitzen badu, zuzendaritza organo bat maila bereko beste zuzendaritza organo baten mendean egon ahal izango da.

Gobernu-departamentuak existitzen direla zehaztuz gero, alkateak koordinazio politikoaren funtzioak esleitu ahal izango dizkie Gobernu Batzordeko zinegotziei edo ordezkariari.

Horrelakoetan, zuzendaritza organoak hierarkikoki antolatuko dira, hau da: Koordinatzailea edo koordinatzaile nagusia eta zuzendaria.

## 2. ATALA. -Goi-mailako organoak

#### *30. artikulua. Goi mailako organoak.*

Udal-administrazio exekutiboko goi mailako organoak dira alkatea eta Gobernu Batzordeko kideak (zinegotziak nahiz zinegotzi ez direnak); azken horiei, hain zuzen, gobernu ordezkariak deituko zaie.

#### *31. artikulua. Gobernu-zinegotziak eta gobernu-ordezkariek.*

Alkateak, antolamendu dekretuaren bidez, eta Tokiko Gobernu Batzordeak, hartutako erabakiaren bidez, dagozkien funtzioak eta eskuduntzak eskuordetu ahal izango dizkiete zinegotziei edo gobernu ordezkariari.

Ordezkaritza duten zinegotziak («gobernu zinegotziak» deituko zaie) eta gobernu ordezkariak osatzen dute udal gobernuak, alkatearen zuzendaritzapean eta goi mailako erantzukizun politikoaren mendean.

Alkatearen dekretuz –bertan zehaztutako baldintzetan–, Gobernu Batzordeko kide ez den zinegotzi ordezkari bat ezaugarri hori duen beste baten mendean jarri ahal izango da.

#### *32. artikulua. Zuzendaritza politikoaren eta goi mailako zuzendaritzaren funtzioak.*

1. Gobernu-programari jarraiki, ordezkariak duten zinegotziei eta gobernu ordezkariari dagokien esleitutako administrazio unitateetan sartutako administrazio jardueraren eremuetako zuzendaritza politikoa eta goi mailako zuzendaritza, eta, bereziki, honako beste funtzio hauek:

- a) Goi mailako ordezkariak eta zuzendaritza gauzatea, bai eta kudeaketaren jarraipena egitea ere.
- b) Helburuak finkatzea eta jakinaraztea, horren jardueraren planak onartzea, eta hori gauzatzeko beharrezko diren baliabideak esleitzea, dagozkion aurrekontu-arauei jarraiki.
- c) Udalbatzari eta Gobernu Batzordeari beren eskumen-eremuan dagozkien proposamenak bidaltzea.
- d) Gobernu Batzordeari proposatzea beren eskumen eremuari dagozkion xedapen orokorreko proiektuak eta gainerako proiektuak onartzeko.
- e) Alkateari proposatzea bere eremuko antolamendu eta egitura proiektuak onartzeko.
- f) Eremu horretako jardueraren planari dagokienez, zuzendaritza organoen gauzapena ebaluatzea, eta, horrez gain, horien jarduerarekiko eraginkortasuna kontrolatzea, lortutako helburuak neurtu ahal izango diren adierazle bitartez.
- g) Goi mailako ikuskaritza egitea, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85 bis artikuluan erakunde publikoetarako zehazten zaizkien gainerako funtzioak betetzea, bai horiei dagokienez, bai atxikitzen edo esleitzen diren merkataritza sozietatei dagokienez.
- h) Bere eskumen eremuan dauden langileekin aginpidez jokatzeko, gai horri dagokionez alkateak udalaren zerbitzura dauden langile guztiekiko duen ahalmenari kalterik egin gabe.
- i) Bere eremuko zuzendaritza organoen arteko arazoak konpontzea.
- j) Gobernu Batzordeari bere eremuko zuzendaritza organoetako titularren izendapena proposatzea.
- k) Erregelamendu honetan eta indarrean dauden gainerako xedapenetan esleitzen zaizkien funtzioak betetzea.

2. Alkatearen dekretuz, zinegotziei edo gobernu ordezkariari administrazio-jardueraren zeharkako eremuen zuzendaritza politikoa eta goi mailako zuzendaritza esleitu ahal izango zaie, administrazio unitateak esleitura edo esleitu gabe. Dekretu horretan bertan, eragindako goi mailako, zuzendaritzako eta administrazioari hainbat organoren arteko harreman baldintzak zehaztuko dira.

*33. artikulua. Koordinazio funtzioak dituzten zinegotziak edo gobernu ordezkariak.*

Gobernu departamentuak eta, ondorioz, koordinatzaile nagusiak ezartzea zehaztuz gero, alkateak Gobernu Batzordeko zinegotzi bat edo gobernu ordezkari bat izendatu ahal izango du horiek zuzentzeko.

Alkatearen ardura izango da, edo, bestela, departamentuko koordinazio funtzioak betetzen dituen zinegotzi edo gobernu ordezkariarena, departamentuko koordinatzailearen ekintzen jarraipena egitea, bai eta gobernuarekin elkarrizketatzea ere.

3. ATALA. -Zuzendaritza organoak

*34. artikulua. Zuzendaritza organoak.*

1. Zuzendaritza organoetako titularrak dira, eta horien zeregina funtzionalki homogeneoak diren eskumenen eremu bat edo hainbat zuzentzea eta kudeatzea da; pertsona horiek administrazio antolamenduaren gorenko mailan daude, eta zinegotzi edo gobernu arduradun baten mendean edo, hala badagokie, departamentuko koordinatzaile baten koordinaziopean izaten dira.

2. Alkateari dagokio, aurrekontuaren I. kapitulurako zehaztutako aurrekontu-mugaren baitan, zuzendaritza organoen kopurua eta izendapena zehaztea.

3. Oro har, honako funtzio hauek dagozkie zuzendariei, bakoitzaren erantzukizun eremuan:

- a) Bere eskumeneko zerbitzuak zuzentzea eta kudeatzea, eta mendean dituztenei helburuak zehaztea.
- b) Organo horri atxikitako antolamendu unitateak (zuzenean, bere mendean daudenak) zuzentzea eta koordinatzea, bai eta unitate horietara atxikitako langileak ere.
- c) Esleitutako eta atxikitako erakunde publikoen eta merkataritza sozietateen jarraipena egitea.
- d) Bere funtzio eremuko gaiei buruzko xedapen proiektuak, akordioak eta hitzarmenak egitea.
- e) Esleitu zaien urteko aurrekontua egitea, kudeatzea, horren jarraipena egitea eta kontrolatzea.
- f) Bere eskumeneko zerbitzuak ebaluatzea, adierazle berezi batzuk dituzten helburuen bidez; adierazle horiei esker, zerbitzu horiek ebaluatu eta horien gauzaperen maila neurtu ahal izango da.
- g) Gainerako udal organoek esleitzen dizkietenak.

4. Zuzendaritza organoekin batera (hauek ere administrazio antolaketaren gorengo mailan), zuzendaritza organoetako lanpostuak izan ahal dira, eta horiek lanpostu zerrendan zehaztutako izendapena izango dute; ezingo dute, ordea, zuzendari izena hartu.

*35. artikulua. Koordinatzaile nagusiak.*

Koordinatzaile nagusien izatea eta horien zuzendaritzak, unitateak, erakundeak eta lotura duten sozietateak alkatearen antolamendu dekretuaren bidez zehaztuko dira; koordinatzaile nagusi horiek, zehazki, gobernu departamentuan sartuta dauden hainbat zuzendaritzaren eta organoren (funtzioak betetzen dituzten entitate atxikiak edo esleituak) koordinazio lanak egin, eta funtzio horien edo analogoen ohiko zerbitzuak kudeatzen dituzten udaleko zuzendaritza organoak dira.

Alkateak emandako antolamendu dekretuan zehazten diren funtzioez gain, honako hauek bete beharko dituzte:

- a) Hainbat zuzendaritzatan eragiten duten proiektuak eta zeharkako proiektuak koordinatzea.
- b) Hainbat zuzendaritzatan eragiten duten prozesuak garatzea eta zehaztea.
- c) Proiektu korporatiboak planifikatzea, egitea eta kudeatzea.
- d) Antolamendu egituren jarraipena egitea eta hobetzea.
- e) Administrazioaren modernizazioa bultzatzea (IKT berriak, administrazio digitala).
- f) Departamentuko ohiko zerbitzuak zuzentzea; horretarako, departamentuari atxikitako langileei helburuak esleituko zaizkie, eta horien betetze maila aztertzeko adierazleak zehaztuko dira.

Bere funtzioak betetzean alkatearen mendean egongo da zuzenean, edo, bestela, Gobernu Batzordeko zinegotzi baten edo gobernu ordezkariaren mendean.

*36. artikulua. Beste zuzendaritza organo batzuk.*

Zuzendaritza organoetatik hartzen dira, halaber, honako hauek: Udalbatzako idazkari nagusia, udaleko kontu-hartzaile nagusia, eta, hala badagokie, aholkularitza juridikoaren titularrak, laguntza organoaren titularrak eta zerga kudeaketaren titularrak.

Legez dagokien erregimen espezifikoak aplikatuko zaie.

*37. artikulua. Zuzendaritza batzordea.*

Gobernu departamenturik baldin bada, Zuzendaritza Batzorde bat izateko bidea ere izango da, departamentua sortzeko buruzko alkatearen dekretuan zehaztutako funtzioak izango dituenak. Zehazki, honako hauek osatuko dute batzorde hori:

Alkatea edo ahalmenak eskuordetu dizkion zinegotzia; batzordeko lehendakaria izango da.  
Departamentu koordinatzailea.  
Antolamendu zuzendaria.  
Plan estrategikoaren zuzendaria.  
Kontu-hartzailea.  
Idazkari nagusia.  
Zuzendari juridikoa.  
Aurrekontu zuzendaria.

*38. artikulua. Zuzendaritza organoak: Erregimena.*

Udaleko zuzendaritza organoak alkateak zehaztuko dituen departamentu-koordinatzaileak eta zuzendariak dira, eta administrazioaren gorengo mailan egongo dira; zehazki, administrazio exekutiboaren antolamendua eta egitura ezartzean zehaztuko ditu alkateak, antolamendu dekretuaren bitartez.

Zuzendaritza organo horiei eta organo horien titularrei une bakoitzean zuzendaritza langileentzako eta udaleko zuzendaritza organoetarako indarrean den araudia aplikatuko zaie.

Alkatearen ardura izango da antolamendu dekretu bidez zuzendaritza organoa zehaztea, bikaintasuna egiaztatzeko aurretiko txostena oinarri hartuta; zuzendaritza organoaren izendapenerako ez da ezinbestekoa funtzionarioa izatea.

**4. ATALA. -Aholkularitza Juridikoa**

*39. artikulua. Aholkularitza Juridikoa.*

1. Aholkularitza Juridikoa Donostiako Udalari eta haren erakunde publikoei laguntza juridikoa ematen dien organoa da, indarrean dagoen legediak estatuko, erkidegoko eta udalerriko beste organo batzuei ezarritako funtzioei kalterik eragin gabe.

Udaleko merkataritza sozietateen edo partaidetza sozietateen administrazio kontseiluaren eskariz, horiei laguntza juridikoa emateaz ere arduratu ahal izango da.

2. Aholkularitza Juridikoaren titularrak zuzendaritza organoaren maila du, ondorio guztietarako.

*40. artikulua. Antolamendua*

1. Aholkularitza Juridikoa Donostiako Udaleko zerbitzu juridikoetako abokatuek eta zerbitzu horien mendeko hainbat unitatetan lan egiten duten funtzionarioek osatzen dute; hori guztia lanpostu zerrendan zehaztutakoaren arabera.

2. Aholkularitza Juridikoaren zuzendariak du Donostiako Udaleko zerbitzu juridikoa zuzentzeko ardura, eta, horrenbestez, udalbatzako idazkari nagusiak funtzio juridikoa zuzentzeko eta koordinatzeko duen gorengo ahalmenaren mendean, udaleko zerbitzu juridikoei eskatutako funtzioak nahiz zerbitzuak berak zuzentzea, koordinatzea eta aztertzea dagokio, araudiaren arabera beste organo batzuei dagozkienei kalterik eragin gabe.

3. Titularra Gobernu Batzordeak izendatu eta kargutik kenduko du; gainera, baliteke titulartzat idazkari nagusia izendatzea, Aholkularitza Juridikoaren zuzendariari dagozkion funtzioak esleitzuz.

4. Aholkularitza Juridikoa Alkatetzari eta Udalbatzako Lehendakartzari dago atxikita, zuzenean.

5. Administrazio Publikoetako kontratu-legediari jarraiki, Aholkularitza Juridikoaren zuzendariak udalean eta erakunde publikoetan eratzten diren kontratazio mahaietan parte hartu behar du; era berean, aipatutako legedian esleitutako txostenak bidaliko dizkio estatuko zerbitzu juridikoari (funtzio hori Aholkularitza Juridikoan lan egiten duten abokatuak edo zuzenbidean lizentziatuak diren funtzionarioei eskuordetu diezaieke).

*41. artikulua. Donostiako Udaleko abokatuak.*

1. Epaiketa batean ordezkatzeko eta defendatzeko funtzioa nahiz abokatuaren aholkularitza zerbitzua emateko betebeharra duten lanpostuak Aholkularitza Juridikoko funtzionarioei soilik atxikiko zaizkie.

2. Donostiako Udaleko abokatuek funtzio guztiak betetzeko eta beren karguari dagozkion zerbitzu guztiak emateko ahalmena izango dute, dagokien lanposturako izendatzen dituztenean eta horren jabe egiten direnean.

3. Aholkularitza Juridikoko abokatuek beren funtzioak gauzatu behar dituzte eksklusiboki, eta, beraz, bateraezinak dira edonolako beste lan-jarduerekin.

4. Udaleko abokatuek kide anitzeko organoetan parte har dezakete horietako kide izendatzen dituztenean edo indarrean dagoen araudian hala aurreikusten denean.

5. Interes publikoko arrazoiak direla-eta sortutako egoera berezietan, alkateak –zuzendariaren eskariz– zuzenbidean lizentziatuak diren udaleko funtzionarioei ahalmena eman ahal izango die behin-behinean abokatu funtzioak bete ditzaten; pertsona horiek ez dute, inola ere, abokatuaren lanpostua beteko. Ahalmen emate hori urtebeteren buruan irautziko da, baldin eta aurrez baliogabetzen ez bada, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da, arrazoi eta baldintza berdinek jarraitzen badute.

#### *42. artikulua. Funtzioak.*

Botere judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Legearen 551. artikuluko hirugarren atalean xedatutakoari jarraiki, Aholkularitza Juridikoari dagokio alkateari, Gobernu Batzordeari eta zuzendaritza organoari laguntza juridikoa ematea (hau da, juridikoki aholkatzea eta udala nahiz bertako erakunde publikoak ordezkatu eta defendatzea), baldin eta horiek ordezkatzeko eta defendatzeko abokatu kolegiatu bat izendatzen ez badute.

Aholkularitza Juridikotik aparte beste zerbitzu batzuek edonolako laguntza juridikoa emateko (udal funtzionarioek egiten duten espediente kudeaketaren desberdina), aurrez zuzendariak proposatu eta baimendu behar du.

#### *43. artikulua. Auzibideko funtzioaren betetzea.*

1. Edozein jurisdikzio agindu eta organoren aurrean, Donostiako Udala eta bere erakunde publikoak ordezkatzeko eta defendatzeko Aholkularitza Juridikoko abokatuen ardura da, prozesu arauetan nahiz ondorengo ataletan xedatutakoari jarraiki.

2. Aholkularitza Juridikoaren titularrak berariaz baimena eman eta gero, udaleko abokatuak Donostiako Udaleko eta horren erakunde publikoetako agintariak, funtzionarioak eta langileak ordezkatzeko eta defendatzeko bere gain hartu ahal izango dute, dagozkien funtzioak betetzearekin zuzenean eta berehala lotuta dauden ekintzak edo huts-egiteak direla-eta egiten diren prozedura judizialean.

Agintariari, funtzionarioari edo langileari dagokion departamentuaren edo zuzendaritza organoaren titularrak pertsona hori ordezkatzeko eta defendatzeko proposatuko dio Aholkularitza Juridikoari, modu arrazoituari. Baimena emateko, ezinbestekoa izango da auzia udalaren eskubide eta interes orokorren defentsarekin bateragarri izatea, eta, bereziki, prozesu horretan eztabaidagai diren eskubideen defentsarekin. Abokatuak edozein jurisdikzioaren aurrean udal agintarien, funtzionarioen edo langileen izenean ekintza judizialak hasteko, organo eskumendunaren baimena ere ezinbestekoa izango du, hark hartu behar baitu prozesuari ekiteko erabakia.

Dagozkien funtzioak edo karguak behar bezala betetzearen egin dituen ekintzak eta huts-egiteak direla-eta atxilotu, kartzelaratu edo behin-behineko beste neurriren bat hartzen bada, eta interes gatazkarik ez badago, agintariak, funtzionarioak edo langileak Aholkularitza Juridikoaren zuzendari nagusiarengana jo ahal izango dute, zuzenean, abokatuaren laguntza eskatzeko; laguntza hori eman egingo da, baina, gero, berariazko baimena beharko da emandako laguntzarekin jarraitzeko.

Dena den, aurreko paragrafoetan xedatutakoak ez du inolako eraginik izango agintariak, funtzionarioak edo langile publikoak bere burua ordezkatzeko eta defendatzeko egokientzat jotzen dituen profesionalak aukeratzeko duen eskubidean; beraz, bere abokatuak izendatu duela jakiten den unetik beretik, udaleko abokatuaren laguntza juridikoari uko egin diola ulertuko da.

3. Gai zehatz batzuekin, eta Aholkularitza Juridikoko zuzendariak hala proposatzen edo baimentzen duenean, gaiari dagokion organo eskumendunak abokatu kolegiatu bat izendatu ahal izango du, udala edo bertako erakunde publikoak ordezkatzeko eta defendatzeko.

#### *44. artikulua. Kontsulta-funtzioen betetzea.*

1. Aholkularitza Juridikoari dagokio honako gai hauei buruzko informazioa ematea, aurretiaz eta nahitaez:

- a) Ordenantza eta erregelamendu proiektuak.
- b) Donostiako Udalak edo horren erakunde publikoek egiten dituzten hitzarmenak.
- c) Agiri moten ereduak (pleguak); halakorik ezean administrazio baldintzen agiri bereziak; administrazio kontratuen aldaketei, ebazpenei eta interpretazioei buruzko erabakiak; eta zenbaitetan, administrazio kontratazioei buruzko legediari jarraiki, Aholkularitza Juridikoaren aurretiko txostenak.
- d) Partikularrek udaletxean edo bere erakunde publikoetan aurkezten dituzten jarduteko ahalordeen eskiespenak.
- e) Ekintza judizialen gauzatzeari buruzko erabakiak.
- f) Kaltegarri jotzeko prozeduretako ebazpen proposamenak.
- g) Epaitegi eta auzitegiaren jurisdikzio gatazken planteamenduak.
- h) Indarrean dagoen legediak nahitaezko txostena egitea eskatzen dion beste edozein gai.

2. Era berean, alkateak, Gobernu Batzordeko kideek, udaleko zuzendaritza organoek eta erakunde

publikoek beren eskumeneko gaiekin lotutako edozer gauza galdetu ahal izango diote Aholkularitza Juridikoari, eta aholkatu beharreko puntuak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

3. Abokatuaren txostenak ez dira lotesleak, eta hamar eguneko epean igorriko dira, baldin eta prozedura epe txikiagoa zehazten ez bada edota txostenaren eskarian hala adierazten ez bada.

#### 5. ATALA. -Kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren eta aurrekontu kudeaketaren organoak

##### *45. artikulua. Kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren organoa.*

1. Tokiko erregimenaren legediari jarraiki, Donostiako Udaleko kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa egiteko organoa sortu da; hain zuzen, organo horren eskumenak egitura organikoari buruzko dekretuan zehaztutakoak dira: Funtsen, balioen eta ondorioen erabilera eta zaintza, eta Donostiako Udaleko betebeharren ordainketa. Horretarako, ordea, kutxa batasunaren printzipioa, soberakin likidoen errentagarritasuna, diru-zaintzako eragiketen eta kreditu eragiketen adostasun proposamena, eta zerga kudeaketaren organoari buruzko 57/2003 Legeak araututakoak oinarri hartu beharko dira; azken horiek, zehazki, behean zerrendatu dira:

a) Udaleko zerga ekintzak eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrerak kudeatzea, horien likidazioa egitea, aztertzea, jasotzea eta berrikustea. Udalak lau urterako egin ahal izango dituen inbertsioko eta finantzako planak eta programak.

b) Zehapen espedienteak izapidetzea eta ebaztea.

c) Diru-sarrera arruntei dagokienez, diru-sarrera publikoen politika orokorra aztertzea eta diseinatzea.

d) Diru-sarrera arruntei dagokienez, zergei buruzko arauak proposatzea, egitea eta interpretatzea.

e) Diru-sarrera arruntei dagokienez, aurrekontu gauzapearen jarraipena egitea eta agintzea.

f) Udaleko zerga arau bereziak proposatzea, egitea eta interpretatzea.

2. Kudeaketa ekonomikoaren eta finantzarioaren organoa zinegotzi ordezkariari edo gobernu ordezkariari atxikita egongo da, egiturari eta funtzioari dagokionez (hau da, gaiaren arabera eskumen eremuko titular den pertsonari atxikita); organo hau, zehazki, pertsona horren mendean egongo da, zuzenean edo, bestela, zuzendaritza-organoa baten nahiz azken horren administrazio organo edo unitate baten bidez. Hori guztia, hain zuzen, dagokion egitura dekretuak zehaztutakoaren arabera antolatuko da.

3. Organo horren titularra ahalmen orokorra duen tokiko administrazioko funtzionarioa izango da, eta artikulua honen 1. zenbakian zehaztutako funtzioak bete beharko ditu.

##### *46. artikulua. Aurrekontu kudeaketarako organoa.*

1. Tokiko erregimenaren legediari jarraiki, Donostiako Udaleko Aurrekontu kudeaketarako organoa sortu da, eta horrek izango dituen eskumenak dagokion egitura ebazpenean zehaztuko dira: Eskumen horiek, zehazki, udaleko aurrekontu proiektu orokorra egiteari eta horren azterketa, jarraipena eta ebaluazioa egiteari buruzkoak dira. Dena den, ez die kalterik eragingo gai horri dagokionez legedi horrek alkateari esleitutako eskumenei, ez eta azken horrek eskuordetu diezazkien eskumenei ere.

2. Aurrekontu kudeaketaren organoa zinegotzi ordezkariari edo gobernu-ordezkariari atxikita egongo da, egiturari eta funtzioari dagokionez (hau da, gaiaren arabera eskumen eremuko titular den pertsonari atxikita); organo hau, zehazki, pertsona horren mendean egongo da, zuzenean, edo, bestela, zuzendaritza organo baten nahiz azken horren beste administrazio organo edo unitate baten bidez. Hori guztia, hain zuzen, dagokion egitura ebazpenak zehaztutakoaren arabera antolatuko da.

##### *47. artikulua. Kontabilitate-organoa.*

1. Tokiko erregimenaren legediari jarraiki, Donostiako Udaleko kontabilitate-organoa sortu da; organo horrek, hain zuzen, egitura organikoari buruzko dekretuan zehaztutako eskumenak ditu, Donostiako Udaleko kontabilitate funtzioen edo jardueren koordinazioarekin lotura dutenak, eta kontabilitate publikoko erregimenaren mendean daude. Hala eta guztiz ere, ez die kalterik egiten alor horretan legez alkateari dagozkion eskumenei, ez eta azken horrek eskuordetutakoei ere.

2. Kontabilitate-organoa zinegotzi ordezkariari edo gobernu-ordezkariari atxikita egongo da, egiturari eta funtzioari dagokionez (hau da, gaiaren arabera departamentu eskumendunaren titular den pertsonari atxikita); organo hau, zehazki, pertsona horren mendean egongo da, zuzenean edo, bestela, zuzendaritza organo baten nahiz azken horren beste administrazio organo edo unitate baten bidez. Hori guztia, hain zuzen, dagokion egitura dekretuak zehaztutakoaren arabera antolatuko da.

3. Organo horren titularra gaitasun nazionaleko tokiko administrazioko funtzionarioa izango da, eta artikulua honen 1. zenbakian zehaztutako funtzioak bete beharko ditu.

#### 6. ATALA. -Kontrolaren eta barne fiskalizazioaren organo arduraduna

##### *48. artikulua. Udaleko Kontuhartzaitza Nagusia.*

1. Tokiko erregimenaren legediari jarraiki, Donostiako Udaleko kontrola eta barne fiskalizazioa egiteko

organoa sortu da; organo horrek, hain zuzen, egitura organikoen dekretuan zehaztutako eskumenak ditu, kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren eta aurrekontu-kudeaketaren kontrola eta barne fiskalizazioa egiteari buruzkoak, eta hiru adierazpen-mota hartzen ditu: Kontu-hartzailearen funtzioa, finantza kontrolaren funtzioa eta eraginkortasun kontrolaren funtzioa. Horrek guztiak, ordea, ez die kalterik egiten alor horretan legez alkateari dagozkion eskumenei, ez eta azken horrek eskuordetu ditzakeenei ere.

Halaber, ekitaldi bakoitzeko kontu orokorren aurrekontu likidazioa egitea ere bere ardura da, bai eta organo eskumendunari ebazpen proposamena egitea ere.

2. Kontuhartzaitza Nagusiak, bere funtzioak betetzen dituenean, fiskalizatu behar dituen udaleko organo eta entitateekiko eta zuzendaritza karguekiko autonomia osoz jokatu du, eta bere funtzioak betetzeko beharrezko diren kontabilitate datu eta agiri guztiak aztertu ahal izango ditu.

Tokiko erregimeneko legedian aurreikusitakoari jarraiki, Kontuhartzaitza Nagusiari aurreko ataletan esleitutako funtzioen desberdinak edo osagarriak eman ahal izango zaizkio.

3. Aurrekoari eragin gabe, Kontuhartzaitza Nagusia dagokion egitura dekretuan zehazten den departamentuari atxikita egon ahal izango da.

4. Organo horren titularrak zuzendari funtzioa beteko du; zehazki, gaitasun nazionaleko tokiko administrazio funtzionarioa izango da, eta artikuluko honen 1. zenbakian zehaztutako eginkizunak bete beharko ditu.

## V. TITULUA

### KIDE ANITZEKO ORGANOAK

#### *49. artikulua. Kontzeptua.*

1. Kide anitzeko organoak formalki sortzen dira eta hiru pertsonak edo gehiagok osatuta egoten dira; organo horien egitekoa, hain zuzen, beste organo batzuen edo jardueren administrazio funtzioa betetzea da, hau da, aholkularitza zerbitzua ematea, jarraipena egitea, koordinatzea eta kontrolatzea.

2. Auzotarren edo horiek ordezkatzan dituzten auzo elkarteen parte hartzea aurreikusten den kide anitzeko organoetan, bertako arau espezifikoak beteko dira.

#### *50. artikulua. Eraketa baldintzak.*

Kide anitzeko organoak eratzean, organo hori eratzeko arrazoiak zehaztu beharko dira, organoaren eraketa ebazpenean edo beste administrazio publikoekin egindako hitzarmenetan:

- a) Organoaren xedeak eta helburuak.
- b) Administrazioan beteko duen lekua edo mendekotasun hierarkikoa.
- c) Organoaren osaketa, eta lehendakaria nahiz gainerako kideak izendatzeko oinarri hartuko diren irizpideak.
- d) Aholkularitza, jarraipen, koordinazio eta kontrol funtzioa, eta horietan erabakitze ahalmena, bai eta gerora esleitu diezazkioketen bestelako funtzioak ere.
- e) Horren funtzionamendurako behar besteko kreditu-hornidura.

#### *51. artikulua. Erregimen juridikoa.*

Kide anitzeko organoen erregimen juridikoa Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen legean zehaztutako arauen arabera egokituko da, bere eraketa arauan zehaztu diren antolamendu berezitasunak baztertu gabe.

#### *52. artikulua. Eratzea, aldatzea eta desegitea.*

1. Alkateari dagokio erabakitze ahalmena duten kide anitzeko organoak dekretu bidez sortzea; horiek, hain zuzen, zinegotziek eta gobernu ordezkariak nahiz zuzendaritza organoetako titularrek osatu ahal izango dituzte.

Organo horien eskumenak alkateak edo udaleko beste organoek esleituko dizkiete, dagokien ordezkariaren bitartez.

2. Alkateak kide anitzeko organoak sortzea erabaki ahal izango du; hain zuzen, organo horien funtzioa honako prozesu hauetan zehaztuko da: Beste erakunde batzuen (hainbat departamentu, erakunde publiko eta udal sozietate publikoak edo partaidetza sozietateak, eta, azkenik, entitate publikoak) eskumenean dauden administrazio organoen eta jardueren jarraipena egitean, horiei aholkularitza zerbitzua ematean, koordinatzean eta kontrolatzean. Organo horietan, interesa duten departamentu edo erakundeetako ordezkariak sartuko dira.

3. Aurreko ataletan aurreikusitakoaz gain, alkateak kide anitzeko organoak eratzeari buruzko gaia udal bilkuran aztertze proposatu ahal izango du, honako kasu hauetan: Organo horren osaera politikoa, beste administrazio publiko batzuen parte hartzea, nahiz organo horren osaerak eta funtzioek duten garrantzi instituzionala direla-eta egoki irizten dionean, edota lege nahiz araudi batek horretara behartzen duenean.

4. Gobernu departamentuaren koordinazio funtzioa duten zinegotzi eta gobernu ordezkariak nahiz

koordinatzaile nagusiei dagokie kide anitzeko organoak eratzeko erabakia hartzea; organo horien funtzioak, hain zuen, beren eskumeneko administrazio organoen edo jardueren jarraipena egitean, aholkatzean, koordinatzean eta kontrolatzean zehaztuko dituzte.

5. Organo horietan, beste administrazio publikoetako ordezkariak nahiz gizarte intereseko erakunde ordezkariak parte hartu ahal izango dute, bai eta beren esperientzia baldintza eta ezagutza bereziak direla-eta izendatzen diren beste kide batzuek ere.

Beste administrazio publiko batzuetako ordezkariak parte hartuko dute horiei aplika dakiekeen arau batek hala erabakitzen duenean, hitzarmen batean hala zehazten denean edo beren borondatez hala erabakitzen dutenean.

6. Kide anitzeko organoak aldatzeko edo desegiteko, eratzeko zehaztutako bide bera jarraitu beharko da, organo hori desegiteko epea aurrez zehaztuta egon ezean; izan ere, desegiteko zehaztutako data iristean, automatikoki baliogabeko dira.

## VI. TITULUA

### ERAKUNDE PUBLIKOAK

#### *53. artikulua. Eraketa, funtzioak eta atxikipena.*

1. Donostiako Udalak erakunde publikoak sortu ahal izango ditu exekuzio edo kudeaketa jarduerak egiteko (bai sustatzea eta zerbitzua ematea xede duten jarduerak, bai ekonomia alorreko jarduerak).

2. Esleituta dituzten xede eta helburuei nahiz gobernu eta administrazio ekintzei dagokienez, erakunde publikoek instrumentaltasun printzipioa hartuko dute oinarri, Donostia hiriko interes orokorren zerbitzura.

3. Erakunde publikoak udal administrazioaren mendean daude, eta, alkatearen dekretuz, zuzendaritza edo gobernu departamentu eskumendunari atxikitzen zaizkie; zehazki, dagokion zinegotzi ordezkariari edo gobernu ordezkariari nahiz dagokion departamentuko zuzendariari edo koordinatzaileari dagokie erakunde horien jarraipena egitea eta zuzentzea, arau honetan aurreikusitako baldintzei jarraiki.

4. Salbuespeneko kasuetan, dagokion zinegotzi ordezkariari edo gobernu-ordezkariari soilik atxiki ahal izango da.

#### *54. artikulua. Nortasun juridikoa eta ahalmenak.*

1. Indarrean dagoen legedian aurreikusitako baldintzei jarraiki, erakunde publikoek nortasun juridiko desberdina eta ondare eta diruzaintza propioa dituzte, bai eta kudeaketarako autonomia ere.

2. Erakunde publikoei beren helburuak betetzeko beharrezko diren ahalmenak eta eskumenak dagozkie, estatutuek aurreikusten duten baldintzetan.

#### *55. artikulua. Sailkapena.*

1. Erakunde publikoak honela daude sailkatuta:

- a) Erakunde autonomiadunak.
- b) Enpresa entitate publikoak.

2. Erakunde autonomiadunak administrazio zuzenbidearen arabera gobernatzen dira, eta sustapen jarduerak, prestaziozkoak edo zerbitzu publikoak kudeatzeko jarduerak egitea eskatzen zaie, funtzioen deszentralizazioa bultzatzeko eta departamentu bateko jardueraren programa espezifikoa gauzatzeko.

3. Enpresa entitate publikoak prestaziozko jarduerak egitea, zerbitzuak kudeatzea edo kontraprestazioan eman daitezkeen interes publikoko ondasunak sortzea eskatzen zaien erakunde publikoak dira.

Enpresa entitate publikoak zuzenbide pribatuen arabera gobernatzen dira, beren organoei dagozkien eginbeharrak betetzean, esleituta dituzten administrazio ahalmenak gauzatzean, eta indarrean dagoen legedian nahiz estatutuetan espezifikoki araututa dituzten alderdietan salbu.

Enpresa erakunde publikoei esleitutako administrazio ahalmenak estatutuetan berariaz ahalmen hori esleitu zaien enpresa entitate publikoetako organoek soilik gauza ditzakete.

4. Erakunde autonomiadunak bere jarduera emaitzen zuzendaritza estrategikoa, ebaluazioa eta kontrola dagokion zinegotzi ordezkariaren edo gobernu ordezkariaren mendean daude, organismoa atxikita dagoen organoaren bitartez.

5. Enpresa entitate publikoak, berriz, zinegotzi ordezkariaren edo gobernu ordezkariaren nahiz erakunde autonomiadun baten mendean daude, eta, beraz, aurreko atalean aipatutako funtzioak erakunde horien atxikipen organoari dagozkio.

6. Beren estatutuei jarraiki ezaugarri bereko edo desberdineko beste erakunde batzuk zuzentzeko nahiz koordinatzeko ardura duten enpresa entitate publikoak egon daitezke, bai eta, tokiko erregimenaren oinarriak arautzeko legearen hamabigarren xedapen gehigarrian zehaztutako baldintzak oinarri hartuta, udaleko merkataritza sozietateak zuzentzeko eta koordinatzeko funtzioa dutenak ere.

*56. artikulua. Eratzea, aldatzea, bat egitea eta desegitea.*

1. Erakunde publikoak eratzea, aldatzea, bateratzea eta desegitea udalbatzari dagokio. Hau da, udalbatzak onartu egingo du, gobernu batzordearen proposamenari jarraiki, eta, ekimen bakar horrekin, halaber, dagokion estatutua edo horren aldaketa onartuko dira; bestalde, onarpen hori argitaratu egin beharko da, jende guztiak jakin dezan.

2. Erabakietan, erakundeko langileei aplika dakizkiekeen neurriak zehaztuko dira; hau da, langileak udal administrazioan edo dagokien erakunde publikoan sartzeari dagozkien neurriak hartuko dira.

Era berean, ondarearen integrazioa eta bertan izaten diren eraginak nahiz indarrean dauden kontratuetan eragindako ondorioak zehaztuko dira.

*57. artikulua. Estatutuak.*

1. Erakunde publikoetako estatutuetan, honako alderdi hauek sartuko dira, gutxienez:

a) Eratutako erakunde publikoaren izaera juridikoa, eta erakundeak dituen helburu nagusiak.

b) Erakundeko zuzendaritza organo nagusien zehaztapena –pertsona bakarrekoak edo kide anitzekoak–, bai eta horiek izendatzeko modua ere; horrez gain, administrazio bidea agortzen duten ekintzak eta ebazpenak zehaztu behar dira.

c) Erakundearen funtzioak eta eskumenak, horrek izan ditzakeen administrazio ahalmen nagusiak adierazita.

d) Enpresa entitate publikoei dagokienez, estatutuetan administrazio ahalmenak gauzatzea dagokien organoak ere zehaztuko dira.

e) Beren helburuak betetzeko esleitutako ondarea, eta erakundea finantzatu behar duten baliabide ekonomikoak.

f) Giza baliabideei, ondareari eta kontratatzeari buruzko erregimena.

g) Aurrekontu erregimena, ekonomiko-finantzarioa, kontabilitatekoa eta esku-hartzekoa, finantza kontrola eta eraginkortasun kontrola; nolahi ere, tokiko ondasunei buruzko legediari nahiz tokiko erregimenaren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. tituluko III. kapituluaren xedatutakoari jarraiki egingo dira.

h) Udaletarako tokiko legedian aurreikusitako kudeaketa-ereduen erabilerarako nahiz sustapen jardueren erabilerarako mugen zehaztapena. Jarduera horietarako, hain zuzen, erakundeak ahalmena izango du, baldin eta aipatutako muga ezartzen ez bada.

2. Estatutuak dagokien erakunde publikoa funtzionamenduan hasi aurretik onartu eta argitaratu beharko dira.

*58. artikulua. Atxikpenak, antolamendu arauak eta funtzionamendua.*

1. Bere eskumen eremuan erakunde publikoak dituen zinegotzi ordezkariak edo gobernu ordezkariak honako ahalmen hauek izango ditu:

a) Jardueraren emaitzak estrategikoki zuzentzea, ebaluatzea eta kontrolatzea.

b) Langileen ordainsarien baldintzak egokitu behar diren arauak finkatzea, zuzendaritza langileei dagokiena salbu, hori zehaztea udalbatzari dagokio eta.

c) Ordainsariak emateko zinegotzi ordezkariaren edo gobernu ordezkariaren baimena beharrezko duten - gutxienezko kontratuen zenbatekoak zehaztea.

d) Zehaztutako kopurua baino handiagoak diren zenbatekoak ordaindu aurretik baimena ematea.

e) Kudeaketan eraginkortasun-kontrolak zehaztea eta horien jarraipena egitea, Aurrekontuen Lege Orokorrak horri dagokionez zehaztutako kontrolari kalterik egin gabe. Kontrol horren xedea helburuen betetze maila egiaztatzea da, bai eta esleitutako baliabideak behar bezala erabiltzen direla egiaztatzea ere.

f) Beren estatutuetan zehaztutako gainerakoak.

2. Langileen esparruko eskumenak eskuordetzen zaizkion zinegotzi ordezkariak edo gobernu ordezkariak honako ahalmen hau izango du:

a) Langileen gastuetan eta giza baliabideen kudeaketan izan den bilakaerari buruzko kontrol espezifikoak zehaztea.

3. Atxikipenari buruzko dekretuan, erakundea atxikitzen den departamentuko zuzendariari edo koordinatzaileari esleitzen zaizkion zuzendaritza arruntaren ahalmenak zehaztuko dira.

Zinegotzi ordezkariari edo gobernu ordezkariari dagokionez, artikuluko honen 1. atalean zehaztutako ahalmenak departamentuko koordinatzaileari (halakorik izanez gero) edo zuzendariari (baldin eta zuzendaritza organoaren lekua betetzen badu) esleitu ahal izango zaizkio.

*59. artikulua. Zuzendaritza eta partaidetza organoak.*

1. Honako hauek dira erakunde publikoetako zuzendaritza organoak:



- a) Kontseilu Errektorea.
- b) Lehendakaria.
- c) Gerentea.

2. Bakoitzaren estatutuetan, Aholkularitza Kontseiluak izeneko aholkularitza organoak eta partaidetza organoak eratu ahal izango dira, eta kontseilu horiek osatuko dituzten kideak erakunde publikoek eta gizarte, erabiltzaile, sindikatu, langile edo enpresa erakundeek proposatuko dituzte beren ordezkari izateko, erregelamendu honetan eta aipatutako estatuetan zehaztutako xedapenei jarraiki.

*60. artikulua. Kontseilu Errektorea.*

1. Kontseilu Errektorea erakunde publikoak gobernatzeko eta zuzentzeko kide anitzeko organo gorena da; hain zuzen, organo horri dagokio agindu zaizkien helburuak lortzeaz arduratzea.

2. Kontseilu Errektorea erakundeko lehendakariak eta estatutuak zehaztutako kide kopuruak (gehienez ere zortzi) osatuko dute.

3. Kontseilu Errektoreko kideak Gobernu Batzordeak izendatuko eta, hala badagokio, kargutik kenduko ditu, erakundea atxikita dagoen zinegotziaren proposamenari jarraiki.

4. Udal talde bakoitzaren ardura izango da batzordekide bat aukeratzea (zinegotzia ez den pertsona bat ere izan daiteke), eta, gero, aurreko atalean adierazitako organoak izendatuko du.

*61. artikulua. Lehendakaria.*

Alkatea erakunde publikoetako lehendakaria izango da, eta, horrez gain, Kontseilu Errektorea zuzendu, erakundeko ordezkariarik gehiena izan eta estatutuan zehazten diren eskuduntzak gauzatuko ditu.

*62. artikulua. Gerentea.*

1. Erakunde publikoetako gerentea zuzendaritzako pertsona bakarreko organo nagusia da, eta berak betetzen du zuzendaritza organoaren lekua.

2. Erakundearen ohiko zuzendaritza eta kudeaketa lanak egitea dagokio, bai eta ohiko ordezkari lanak ere; hau da, autonomiaz eta kudeaketa-ahalmenaz jokatzeko du. Dagokion estatutuan bere esleipenen helmena zehaztu beharko da; nolana ere, zuzendaritzaren eta ohiko kudeaketaren arduradun gorentzat duen erantzukizuna bete ahal izango du.

*63. artikulua. Idazkaria.*

Erakunde publikoetako Kontseilu Errektoreko idazkariak beteko ditu Gobernu Batzordeko idazkariaren bulegoko titularraren funtzioak; hau da, erakundearen eskumen esparruan, publikoki fede eman eta lege aholkularitzaren funtzioa beteko ditu. Bere funtzioak betetzeari dagokionez, zuzenbidean lizentziadunak diren udal langileengan edo erakundeko bertako ordezkariengan eskuordetu ahal izango ditu.

## VII. TITULUA

### MERKATARITZA-SOZIETATEAK

#### I. KAPITULUA -UDAL SOZIETATEAK

*64. artikulua. Tokiko merkataritza-sozietateak.*

1. Tokiko merkataritza sozietateak udalek edo horien erakunde publikoek sortzen dituzten erakundeak dira, eta horien kapitala udalari edo erakunde publiko bati dagokio, oso-osorik. Ondorio guztietarako, sozietate horiek sozietate publikotzat hartuko dira.

2. Erantzukizun mugatuko merkataritza-sozietatearen eredu bat hartu ahal izango du.

*65. artikulua. Eraketa, funtzioak eta atxikipena.*

1. Udalbatzaren ardura izango da kudeaketa eredu hori erabiltzeko erabakia hartzea, eta, aukeraketa erabakian, garatu beharreko gizarte helburua zehaztuko da.

2. Estatutuak zehaztea eta onartzea tokiko Gobernu Batzordearen ardura izango da; hori ekitaldi bakarrean hartutako erabakiaren bidez egingo da, eta aldizkari ofizialean argitaratu beharko da.

3. Tokiko merkataritza sozietateak udal administrazioaren mendean daude, eta, alkatearen dekretuz, zuzendaritza edo gobernu departamentu eskumendunari atxikitzen zaizkie; zehazki, dagokion zinegotzi ordezkari edo gobernu ordezkariak nahiz dagokion departamentuko zuzendari edo koordinatzaileak dute erakunde horien jarraipena egiteko eta zuzentzeko ardura, aipatutako dekretuan aurreikusitako baldintzei jarraiki.

4. Salbuespeneko kasuetan, dagokion zinegotzi ordezkariari edo gobernu ordezkariari soilik atxiki ahal izango da.

*66. artikulua. Zuzendaritza eta administrazio organoak.*

1. Estatutuek Batzar Orokorra eta Administrazio Kontseilua izendatzeko modua eta horien fun-

tzionamendua zehaztuko dute, bai eta zuzendaritza organo gorenak ere.

2. Alkatea lehendakaria izango da, eta Administrazio Kontseilua zuzenduko du; horrez gain, erakundeko ordezkari nagusia izango du, eta estatutuan zehazten diren eskuduntzak gauzatuko ditu.

3. Gobernu Batzordearen ardura izango da udalari dagozkion kontseilu kideak izendatzea.

4. Administrazio kontseiluko idazkaria udaleko zuzendari juridikoa izan daiteke; hala izanez gero, Batzordean idazkari eta abokatu funtzioak beteko ditu. Funtzioak betetzeari dagokionez, eginkizun horiek zuzenbidean lizentziadunak diren zuzendaritza juridikoko edo sozietatearen beraren zuzendaritzako langileei eskuordetu ahal izango dizkie. Bestalde, bere proposamenari jarraiki, Kontseiluak idazkariordea izendatu ahal izango du: Aurrez adierazitako langileetako bat edo kanpoko abokaturen bat.

*67. artikulua. Erakunde publikoen sozietateak.*

Erakunde publikoen sozietateei dagokienez, aurreko artikuluetan adierazitako organoak gaiaren arabera dagozkienak izango dira.

## II. KAPITULUA. PARTAIDETZA SOZIETATEAK

*68. artikulua. Udalak gehiengoa duen sozietateak.*

Udalaren edo bere erakunde publikoetako baten partaidetza kapitalaren %50 baino handiagoa den merkataritza organoetan, udal-sozietateetan aurreikusitako erregimena aplikatuko da; hala eta guztiz ere, alkatea izango da udalak sozietateko akzionisten Batzar Orokorrean izango duen ordezkaria, eta horrek sozietatea atxiki zaion eremuko zinegotziari edo gobernu ordezkariari esleitu ahal izango dio bere ordezkari-tza.

*69. artikulua. Gutxienerako partaidetza duten sozietateak.*

Gutxienerako partaidetza duten merkataritza-sozietateak udalak edo bere erakunde publikoek kapitalaren % 50 baino gutxiagoko partaidetza duten elkarteak dira. Erantzukizun mugatuko merkataritza-sozietatearen erduetako bat hartu ahal izango dute.

*70. artikulua. Partaidetza, atxikipena.*

1. Udalbatzaren ardura izango da kudeaketa eredu hori erabiltzeko erabakia hartzea, eta, aukeraketa erabakian, garatu beharreko gizarte helburua zehaztuko da.

2. Sozietateko partaidetza nahiz estatutuak onartzea tokiko Gobernu Batzordearen ardura izango da, ekitaldi bakarrean hartutako erabakiaren bidez.

3. Gutxienerako partaidetza duten udal sozietateak zuzendaritza edo gobernu departamentu eskumendunari atxikitzen zaizkie, alkatearen dekretuz; zehazki, dagokion zinegotzi ordezkari edo gobernu ordezkariak nahiz dagokion departamentuko zuzendari edo koordinatzaileak dute erakunde horien jarraipena egiteko eta zuzentzeko ardura, aipatutako dekretuan aurreikusitako baldintzei jarraiki.

4. Salbuespeneko kasuetan, dagokion zinegotzi ordezkariari edo gobernu ordezkariari soilik atxiki ahal izango da.

*71. artikulua. Zuzendaritza eta administrazio-organoak.*

1. Estatutuek Batzar Orokorra eta Administrazio Kontseilua izendatzeko modua eta horien funtzionamendua zehaztuko dute, bai eta zuzendaritza organo gorenak ere.

2. Estatutuetan horri buruzko aurreikuspenik egin ezean, Tokiko Gobernu Batzordearen ardura izango da Kontseiluan udalaren ordezkari izango diren kideak izendatzea.

3. Udalak sozietateko akziodunen Batzar Orokorrean duen ordezkaria alkatea izango da, eta horrek sozietatea atxiki den eremuko zinegotziarengan edo gobernu ordezkariarengan eskuordetu ahal izango ditu bere eskumenak.

4. Administrazio Kontseiluaren eskariz, Administrazio Kontseiluko idazkaria udaleko zuzendari juridiko izendatu ahal izango da, eta Kontseiluan idazkari eta abokatu funtzioak beteko ditu. Funtzioak betetzeari dagokionez, zeregin horiek zuzenbidean lizentziadunak diren zuzendaritza juridikoko edo sozietatearen beraren zuzendaritzako langileei eskuordetu ahal izango dizkie. Bere proposamenari jarraiki, Kontseiluak idazkariordea izendatu ahal izango du: Aurrez adierazitako langileetako bat edo kanpoko abokaturen bat.

*72. artikulua. Erakunde publikoen sozietateak.*

Erakunde publikoen sozietateei dagokienez, aurreko artikuluetan adierazitako organoak gaiaren arabera dagozkienak izango dira.

## VIII. TITULUA

### BESTE ENTITATE BATZUK

#### I. KAPITULUA. -PARTAIDETZA ENTITATEAK

*73. artikulua. Partaidetza entitateak.*

Erakunde hauek ez dituzte merkataritza sozietateen ezaugarriak, eta horietan udalak partaidetza du, beste pertsona juridiko eta fisiko batzuekin batera (fundazioak, elkarteak).

*74. artikulua. Partaidetza, atxikipena.*

1. Legezko beste xedapen bat denean salbu, Tokiko Gobernu Batzordearen ardura izango da entitate horietako partaidetzaren erabakia hartzea.

2. Partaidetza entitateen jarraipena egitea alkatearen dekretuz esleitzen zaio zuzendaritza edo gobernu departamentu eskumendun bati.

3. Estatutuetan horri dagokionez aurreikuspenik egin ezean, Tokiko Gobernu Batzordearen ardura izango da udalak izendatu behar dituen organoetako kideak izendatzea.

4. Administrazio-organoaren eskariz, horren idazkaria udaleko zuzendari juridiko izendatu ahal izango da, eta, postu horretan, idazkariaren eta abokatu aholkulariaren funtzioak beteko ditu. Funtzioak betetzeari dagokionez, zeregin horiek zuzenbidean lizentziadunak diren zuzendaritza juridikoko edo sozietatearen beraren zuzendaritzako langileei eskuordetu ahal izango dizkie. Bestalde, bere proposamenari jarraiki, Kontseiluak idazkariordea izendatu ahal izango du: Aurrez adierazitako langileetako bat edo kanpoko abokaturen bat.

## II. KAPITULUA. UDALAZ GAINDIKO ENTITATEAK

*75. artikulua.*

Udalbatzaren ardura izango da bere eskumeneko obrak eta zerbitzuak kudeatzeko udalak mankomunitateetan eta partzuergoetan izango duen partaidetza erabakitzea.

*76. artikulua. Udal ordezkartza udalaz gaindiko toki entitateetan.*

Kide anitzeko organoetan udalari dagozkion ordezkariak izendatzea bakoitzaren estatutuetan zehaztutako organoari dagokio; aldiz, zehaztopen berezirik ez badago, Tokiko Gobernu Batzordeak izango du ardura hori.

*77. artikulua. Atxikipena.*

Alkatearen dekretuz, dagokion zinegotzi ordezkariari edo gobernu ordezkariari esleituko zaio kasu bakoitzean udalaz gaindiko entitateak egiten duen kudeaketaren jarraipena egitea, aipatutako dekretuan zehaztutako baldintzei jarraiki.

Atxikita dagoen eremuko zinegotzi ordezkariaren edo gobernu ordezkariaren ardura izango da erakundearen kudeaketari buruzko argibideak ematea, eta, ostera, udal ordezkariari argibide horien jarraipena egitea dagokio.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa. Lehentasunezko ezarpena duten xedapenak.*

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoari jarraiki, X. tituluaren biztanleria handiko udalerrietarako zehaztutako xedapenak maila bereko edo txikiagoko gainerako arauen gainetik egongo dira, horiek aurka egiten dutenean, kontrakoa esaten dutenean edo bateraezinak direnean.

Xedapen hori aplikatuz, erregelamendu honetan dauden arauak maila bereko edo txikiagoko gainerako arauen gainetik egongo dira, horiek aurka egiten dutenean, kontrakoa esaten dutenean edo bateraezinak direnean.

Bereziki, erregelamendu honen xedapenek lehentasun handiagoa izango dute tokiko entitateen antolamenduaren, funtzionamenduaren eta erregimen juridikoaren erregelamenduari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuan gai berari dagokionez zehaztutakoek baino –osagarritzat aplikatuko da–, bai eta tokiko korporazioen zerbitzuen erregelamendua onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuan zehaztutakoek baino.

*Bigarrena. Alkatearen antolamendu-xedapenak.*

Administrazio antolamenduari buruz erregelamendu honetan zehaztu diren xedapenak alkateak, tokiko erregimeneko oinarriak arautzeko legearen 124.4.k) artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, hartzen dituenekin osatuko eta, hala badagokie, garatuko dira.

*Hirugarrena. Lanpostu zerrendak.*

1. Donostiako Udaleko lanpostu-zerrenda onartzea eta aldatzea Gobernu Batzordeari dagokio, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 127.1h) artikuluan aurreikusitakoari eta hurrengo ataletan adierazi diren izapideei jarraiki.

2. Lanpostu zerrendan Donostiako Udalaren zerbitzura dauden langileen lanpostu guztiak sartuko dira: Funtzionarioak, lan kontratudunak edo aldi baterako langileak.

3. Donostiako Udaleko lanpostu zerrendan honako ezaugarri hauek zehaztuko dira, abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 16. artikuluan zehaztutakoari eta euskal funtzio publikoari buruzko 6/1989 Legearen 21. artikuluan zehaztutakoari jarraiki: Izendapena, mota eta horiek betetzeko sistema; horiei dagozkien ordainsari osagarriak; eta lanpostuak betetzeko eskatu diren baldintzak

Lanpostu zerrendak publikoak izango dira.

4. Lanpostu zerrendak Gobernu Batzordeak onartu eta aldatuko ditu, langileei buruzko gaietan eskumena duen departamentuaren proposamenari jarraiki.

Aldaketa horiek errespetatu egin beharko dituzte plantilla hazteari dagokionez estatuko aurrekontu orokorren legetan ezarri diren mugak, bai eta udal aurrekontua gauzatzeari buruzko oinarrietan eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenetan zehaztu diren mugak ere.

Lanpostu zerrendek Gobernu Batzordearen onarpena jasotzen duten egunaren biharamunetik izango dute eragina.

5. Udal langile guztien lanpostuak urtero eguneratuko dira aurrekontuekin batera agertzen diren langileen plantilletan, funtzio publikoaren erreformarako neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 14.5. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

*Laugarrena. Ebazpen liburuak.*

1. Alkatearen dekretuak nahiz haren instrukzioak ebazpen liburuan transkribatuko dira.

2. Gobernuan ardura duten zinegotzi edo gobernu ordezkariak nahiz zuzendaritza organoetako titularrek beren eskumenak edo alkateak nahiz Gobernu Batzordeak eskuordetutakoak gauzatzeari emandako ebazpen erabakitzaileak ere transkribatu egingo dira, dagokien ebazpen liburuan.

3. Ebazpen liburuaren kudeaketa eta oharak errazteko, alkatearen dekretuz eta udaleko administrazio antolamenduari jarraiki egituratu ahal izango da; horrela, beraz, liburu bat egongo da gobernu departamentu bakoitzean, eta, ahal denean, teknika eta baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiliko dira.

4. Donostiako Udaleko Gobernu Batzordeko idazkariaren bulegoko titularra arduratuko da aurreko atalean erreferentzia egin zaien ebazpen liburuez, baina eskumen horiek udaleko beste funtzionario batzuei eskuordetu ahal izango dizkie.

5. Ebazpen liburuak askatasun osoz erabili ahal izango dituzte udal administrazioak eta taldeek.

*Bosgarrena. Barrutiak.*

Udalbatzari dagokio arau organikoaren bidez udalerrria barrutitan banatzea, bai eta horien organoak nahiz organo ordezkari eta partaidetza-organok zehaztea eta arautzea ere; betiere, tokiko erregimenaren oinarriak erregulatzeko legearen 123.1 c) artikuluan xedatutakoari jarraiki, alkateak bere administrazio exekutiboko antolamendua eta eskumenak zehazteko dituen eskuduntzei kalterik egin gabe.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

*Bakarra. Indargabetutako xedapenak.*

Aipatutako erregelamendu organiko hau indarrean sartzen denetik aurrera, indargabetu egingo dira honen aurka egiten duten, kontrakoa esaten duten edo honekin bateraezinak diren Donostiako Udaleko xedapen guztiak. Zehazki, indargabetu egin dira Donostiako Udaleko udalbatzaren erregelamendu organikoaren 151., 152., 153. eta 154. artikulua eta xedapen iragankorra, bai eta 1988ko udaleko erregelamendu organikoa ere, indarrean dagoen alor guztietan.

## AZKEN XEDAPENA

*Bakarra. Jakinarazpena, argitalpena eta indarrean sartzeari.*

1. Tokiko erregimenaren oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 56.1., 65.2., eta 70.2. artikuluetan xedatutakoaren arabera, erregelamendua era honetan argitaratu eta indarrean sartuko da:

a) Erregelamendu hau behin betiko onartzeko erabakia estatuko administrazioari eta Donostiako komunitateko administrazioari jakinaraziko zaie.

b) Jakinarazpena jasotzen denetik 15 egun pasa ondoren, erabakia eta erregelamendua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira.

c) Erregelamendu hau indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean.